VITORIA GASTEIZ green capital!

# BERDINTASUNA ETA JABEKUNTZA



## EMAKUMEEN JABEKUNTZARAKO ETA BERDINTASUNERAKO ESKOLA

2013ko iraila- 2014ko urtarrila

Antolatzailea
BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA

Laguntzailea
MONTEHERMOSO KULTURUNEA

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

## ILDO ESTRATEGIKOAK

- GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA
- FEMINISMOA
- IDENTITATEA, SUBJEKTIBOTASUN FEMENINOA ETA BALIO-ALDAKETA
- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURREA HARTZEA
- KULTURA-ANIZTASUNA ETA ELKARTASUNA
- ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUKIDEA
- KULTURA BIRDEFINITZEA
- KOMUNIKAZIOA ETA GAITASUNAK

## NORI ESKAINIA

- HERRITARREI
- ♀ EMAKUMEEI
- e EMAKUEEN ELKARTEI

## JARDUERAK

- IKASTURTEAREN HASIERA
- HITZALDIAK
- ZINEFORUMA
- IRAKURLE KLUBA
- LANTEGIAK
- BESTE JARDUERA BATZUK

Gizarte honetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako aurrerapauso handiak ematea lortu badugu ere, bizitzaren arlo batzuetan desberdintasun garrantzitsuak ematen dira oraindik ere, eskubideei, botereari, baliabideei eta onurei dagokienez. Hori dela-eta, eta emakumeen eta gizonen arteko harreman pertsonal eta sozialetan oreka handiagoa lortzearren, nazioarteko komunitateak agerian utzi du, besteak beste, beharrezkoa dela emakumeek kontzientzia har dezaten lan egitea, eta horien eragina (banaka zein taldeka) handitu beharra dagoela, haiei egoera sozial, ekonomiko eta politikoa sendotzeko eta hobetzeko aukera emango baitie.

Beraz, Eskolaren jarduera asko emakumeen jabekuntzan oinarritzen dira eta, gainera, berdintasunaren helburuarekin lotutako zenbait ekimen ere abian jarriko ditu, bai emakumeei, bai gizonei eskainita.

Programazioa, lan-lerro estrategiko batzuen arabera egindakoa, diskriminazioko beste aldagai batzuk (adina, jatorria, sexu-aukera, etab.) ere kontuan hartzeko beharretik diseinatu da, eta zenbait gai eta lan-formatu bildu ditu, emakumeen interes eta beharrei erantzutearren bai eta berdintasunaren helburuari.

ORRIALDEA

**2013-2014 IKASTURTEAREN HASIERA**
Montehermoso Kulturunea
*Irailaren 17an, 19:00etan* 6

**HITZALDIA ZERGATIK HARTU BEHAR DUTE PARTE EMAKUMEEK HIRIEN ETA HERRIEN DISEINUAN?**
*Isabela Velázquez Valoria* 7

**HITZALDIA EMAKUMEAK MUNDUKO BAKE-PROZESUETAN: PENTSAMENDUAK ETA PRAKTIKAK**
*Carmen Magallón Portolés* 8

**HITZALDIA ETXE-KALERATZEAK ZUZENEAN BIZI: GENERO-BEGIRADA BAT**
*Cristina Fallarás Sánchez* 9

**HIRIGINTZA PLANGINTZA GENERO-IKUSPUNTUAREKIN**
*HIRIA Kolektiboa* 30

**HITZALDIA EMAKUMEZKOEN SEXUALITATE-EREDUAK: ESTIGMATIK ONARPENERA**
*Dolores Juliano Corregido* 10

**BERDINZINEMA ZINEFORUMA**
*Helena González Estévez*
*ZINHEZBA Kultura Elkartea* 12

**IRAKURLE FEMINISTEN KLUBA “50 SOMBRAS DE GREY” ETA BESTE LITERATURA FENOMENO BATZUK**
*Josune Muñoz San José* 14

**“ORDU BIOLETA”**
**IRAKURLE FEMINISTEN KLUBA**
*Begoña Etayo Ereña* 15

**LANTEGIA AUTODEFENTSA FEMINISTA**
*Maitena Monroy Romero* 16

ORRIALDEA


**LANTEGIA “BURNT OUT” SINDROMEA**
Higadurari aurre egin
*Inma Merino de Castro* 22

**LANTEGIA BESTE BEGIRADA BATZUK POSIBLE DIRA: TRANSGENEROAK ETA SEXU-ANIZTASUNA**
*Inmaculada Mujika Flores* 27

**LANTEGIA NIRE IDENTITATEA EZ DAGO SALGAI!** Berezko identitateari eusteko eta hori sortzeko moduak (18 eta 30 urte bitartekoentzat)
*Beatriz Luz Asensio, Isabel Piqueras Bartolomé* 28

**NORBERAREN ETA TALDEAREN JABEKUNTZARAKO LIDERGO-GAITASUNAK**
Coaching ikuspegitik egindako hurbilketa
*Maru Sarasola Anzola* 29

**HITZALDIA HERRITARREN INPLIKAZIOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA SEXISTAREN KONTRAKO ANTIDOTO ERAGINKORRA**
*Mª Antonia Caro Hernández* 9

**LANTEGIA INDARKERIARI ATEAREN AZPITIK PASATZEN UZTEN DIOGU?** (55 urtetik gorakoentzat)
*Inma Merino de Castro* 23

**“HECHOS SON AMORES”** (Gazteentzat)
Film laburraren bidez hauznartzea
*Belén González Paredes* 31

**HITZALDIA EMAKUME MUSULMANAK: MENDEBALDEKO ESTEREOTIPOAK VERSUS GIZARTE ERREALITATEA**
*Maya Amrane, Hajar Samadi Samadi* 11

**LANTEGIA EMAKUMEEN JABEKUNTZA: ESANAHIAK, ESTRATEGIAK ETA ADIERAZLEAK BERRIKUSI**
*Clara Murguialday Martínez* 20

ORRIALDEA


**LANTEGIA** **KULTURA, GENEROA ETA GIZA GARAPENA**
*Adriana Kaplan Marcusán* — 21

**LANTEGIA** **ZAINTZEA KOSTATZEN DA! DERRIGORREZKO ZAINTZAREKIKO INTSUMISIOA**
*Dominique Saillard Bouyssié* — 26

**HITZALDIA** **BERTSOLARITZA: BEGIRADA FEMINISTA BAT**
*Uxue Alberdi Estibaritz* — 11

**LANTEGIA** **IPUINEN ARNASKETA**
*Virginia Imaz Quijera* — 25

**LANTEGIA** **JENDAURREAN HITZ EGITEKO TEKNIKAK**
*Miriam Ocio Saenz de Buruaga (gaztelaniaz)*
*Esti Redondo Tirado (euskaraz)* — 18

**LANTEGIA** **POSTA ELEKTRONIKOA ERABILTZEA ETA INTERNETEN OINARRIZKO ERABILERA** (55 urtetik gorakoentzat)
*Mentxu Ramilo Araujo, Erika Martin Ugarte* — 24




**INFORMAZIO GEHIAGO**
BERDINTASUNERAKO ZERBITZUA
Santa Maria, 11 – Etxanobetarren Etxea
Tel. 945 161 345
www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna
✉ igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

diseinua: www.tk-taldea.com – inprimatzailea: Gráficas DOSBI

# 2013/14 IKASTURTEAREN HASIERA

## Irailaren 17a, asteartea, 19:00etan
ORTUÑO ARETOA – MONTEHERMOSO KULTURUNEA

HIZLARIAK:

### Ikasturtearen hasiera eta Eskolako programazioaren aurkezpena

***Encina Serrano Iglesias***
Vitoria-Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuko zinegotzi-ordezkaria.

***Zuriñe Elordi Romero***
Vitoria-Gasteizko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuburua.

### Txostena

Emakumeen jabekuntza: hausnarketa feminista bat.
***Teresa Maldonado Barahona***
Bigarren hezkuntzan filosofia irakaslea eta Militante feminista.

### Klownklusiones

***Virginia Imaz Quijera***rekin, "Oihulari Klown" antzerki taldeko zuzendaria.

21:00etatik aurrera, ***Virginia de la Casa Trio***ren kontzertua Farelina lorategietan.

***Sarrera librea izango da toki guztiak bete arte***

**Zeinu-mintzairako interpretaririk eta/edo Haurtzaindegirik** behar baduzu, hiru egun lehenago esan (945 161 345/ igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org)



# HITZALDIAK

**ORDUTEGIA:** 19:00etatik 21:00etara
**TOKIA:** Ortuño Aretoa - Montehermoso Kulturunea

***Sarrera librea izango da toki guztiak bete arte***

**Zeinu-mintzairako interpretaririk eta/edo Haurtzaindegirik** behar baduzu, hiru egun lehenago esan (945 161 345 / igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org)

Urriaren 1a, asteartea

## ZERGATIK HARTU BEHAR DUTE PARTE EMAKUMEEK HIRIEN ETA HERRIEN DISEINUAN?

Gure hiri-herrien eta bertako ekipamenduen plangintza gure gizarte ereduaren adierazpena da eta plangintza horrek pertsonen eguneroko bizitzako ongizatean du eragina. Hori dela-eta, hirigintza ez dago genero-desberdintasunetik at eta berdintasunerantz aurrera egiten lagun dezake. Politika publiko guztietan bezala, honetan ere emakumeek, euren hiritartasuna garatzearren, hirien plangintzan parte hartu behar dute, eta euren beharrak eta interesak jakinarazi behar dituzte.

LAGUNTZAILEAK
Udaleko Herritarren Parte Hartzerako Zerbitzua eta Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorra Berrikusteko Bulegoa - Hirigintza Saila.

**HIZLARIA**
***Isabela Velázquez Valoria***
Hirigintza arkitektoa eta Genero eta Hirigintzari buruzko partehartze prozesuetan aditua.

**MODERATZAILEA**
***Amaia Lizoain Rodríguez***
Herritarren Parte Hartzerako Udal Zerbitzuko teknikaria.

**HIZKUNTZA**
gaztelania

GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA

Urriaren 22a, asteartea

# EMAKUMEAK MUNDUKO BAKE-PROZESUETAN: PENTSAMENDUAK ETA PRAKTIKAK

Emakumeok honakoek batzen gaituzte talde gisa: alderdi negatibotik, bazterketa; alderdi positibotik, emakumeen ohiko rolen ondorioz metatutako ikaspenak, bai gatazkak konpontzeko, bai bizikidetza eraikitzeko, baita zaintza-lanak egiteko. Bazterketak eta ikaspen horiek bat egin dute eta munduan kokatzeko modu bat osatu dute; horrek, eskatzeko aukera emateaz gain, eskaintzeko aukera ere eman digu. Ikuspuntu horretatik, bake prozesuetan antolatu diren talde batzuen esperientziak aztertuko dira; nagusi den paradigma maskulinotik bereizten diren zenbait pentsamendu eta praktika sortu dituzte esperientzia horiek.

**HIZLARIA**

***Carmen Magallón Portolés***

SIP Fundazioko zuzendaria (Bakerako Ikerketa Mintegia) eta WILPF Espainiako burua, WILPF atala (Women's International League for Peace and Freedom).

**MODERATZAILEA**

***Gema Celorio Díaz***

HEGOA / Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko Hezkuntza Taldea.

**HIZKUNTZA**

gaztelania

**GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA**



## Azaroaren 12a, asteartea

# ETXE-KALERATZEAK ZUZENEAN BIZI: GENERO-BEGIRADA BAT

Cristina Fallarásek zuzenean bizi izandako esperientzia azalduko du. Etxea hutsiarazi duten pertsona bati aurpegia, ahotsa eta gorputza jarriko dizkiogu: berari. Egunkari batean zuzendariorde lan egiten zuen eta lanetik kaleratu zutenean hasi zen miserian hondoratzea. Bigarren alabaren haurdunaldian zegoen. Hondoratze hori atean jo eta etxegabetu zutenean burutu zen.

**HIZLARIA**
***Cristina Fallarás Sánchez***
Kazetari eta idazlea.

**MODERATZAILEA**
Gizarte Gaien eta Adinekoen Saileko Talde Teknikoa.

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA**

## Azaroaren 21a, osteguna

# HERRITARREN INPLIKAZIOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA SEXISTAREN KONTRAKO ANTIDOTO ERAGINKORRA

Emakumeen aurkako indarkeria sexista bermatzen dituzten gizarte baldintzak gutxitzeko, behar-beharrezkoa dugu herritarren inplikazioa. Zer egin dezakegu horretan pertsona, talde edo erakunde bakoitzak? Mª Antonia Carok kontatuko dizkigu indarkeria jasan duten emakume biktima batzuek Sevillan bizi izandako esperientziak, herritarren elkartasuna eta laguntza.



**HIZLARIA**
***Mª Antonia Caro Hernández***
Gizarte hezitzailea. Acciónenred GKEko kidea eta Otras Voces Feministas taldeko kidea.

**MODERATZAILEA**
***Ana Soto Pérez***
Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuko teknikaria.

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURREA HARTZEA**

Abenduaren 10a, asteartea

# EMAKUMEZKOEN SEXUALITATE-EREDUAK: ESTIGMATIK ONARPENERA

Gure gizartean, sexualitateari buruzko ideia nagusienetan, “sexuak eta emakumeek” lotura gatazkatsua dute oraindik. Historian emakumeentzat gizonentzat baino sexu-agindu zorrotzagoak izan dira beti; plazerak eta sexualitateak emakumeentzat dituzten arriskuez hitz egin da barra-barra; gizartean emakumeen sexu-ekimenari muga batzuk jartzen zaizkio, gizonentzat berriz, ez dago halako mugarik. Gizarteak, sexu-agindu horien urraketaren aurrean, arauak betetzen ez dituztenak gaitzetsiz eta gizartetik baztertuz erantzuten du.

**HIZLARIA**
***Dolores Juliano Corregido***
Irakaslea eta antropologoa, gutxiengo etnikoetan eta generoan aditua.

**MODERATZAILEA**
***Paca Robles Martín***
Arabako Emakumeen Asanbladako kidea.

**HIZKUNTZA**
gaztelania

FEMINISMOA



Abenduaren 17a, asteartea

# EMAKUME MUSULMANAK: MENDEBALDEKO ESTEREOTIPOAK VERSUS GIZARTE ERREALITATEA

Mendebaldeko gehiengoentzat ezezagunak dira mundu arabiar eta musulmaneko emakumeak. Euskadi ez da salbuespena, ezta gutxiago ere. Noiz arte ikusiko gaituzte aurreiritziz beteta emakume musulmanak? Izotza apurtzeko eta egoera horien inguruan hitz egiteko ordua dugu.

LAGUNTZAILEA
Norabide / Udaleko Etorkinentzako Harrera Zerbitzua (Gizarteratzea Zerbitzua).

**HIZLARIAK**
***Maya Amrane***
Mujeres del Mundo / Munduko Emakumeak Taldeko kidea.
***Hajar Samadi Samadi***
"Bidaya" Emakume Musulmanen Elkarteko Euskadiko arduraduna.

**MODERATZAILEA**
***Estitxu Pereda Sagredo***
Norabide / Udaleko Etorkinentzako Harrera Zerbitzuko teknikaria.

**HIZKUNTZA** gaztelania

KULTURA-ANIZTASUNA ETA ELKARTASUNA

Urtarrilaren 28a, asteartea

# BERTSOLARITZA: BEGIRADA FEMINISTA BAT

Orokorrean, emakumeok bizi dugun desberdintasunak zehazten du, besteak beste, gure ingurunea. Hori dela-eta, bertsolaritzaren eremuan ere badu eragina, beti gizonentzako esparru izan baita. Uxue Alberdik bertsolaritzaren egoera ikuspuntu feministatik aztertuko du, egungo errealitatea azaldu eta gerora begira ditugun erronkak definituko ditu.

LAGUNTZAILEA
Udaleko Euskara Zerbitzua.

**HIZLARIA**
***Uxue Alberdi Estibaritz***
Kazetaritzan lizentziatua, idazlea, bertsolaria bertso feministen Eskolako sustatzailetako bat.

**MODERATZAILEA**
***Yolanda Viadero Villanueva***
Udaleko Euskara Zerbitzuko hizkuntza normalizaziorako teknikaria.

**HIZKUNTZA** euskara

KULTURA BIRDEFINITZEA

# “BERDINZINEMA” ZINEFORUMA

**ORDUTEGIA:** 18:30etik 21:00etara
**TOKIA:** Ortuño Aretoa - Montehermoso Kulturunea
**KOORDINATZAILEA:** Helena González Estévez
Zine eta Giza Eskubideetan aditua. ZINHEZBA Kultura Elkartea.

***Sarrera librea izango da toki guztiak bete arte***

Zineforumean zeinu-mintzairako interpreteak egongo dira eta filmek ondoko hizkuntzatan izango dituzte azpitituluak: *Violeta se fue a los cielos* (gaztelania), *Joven y alocada* (euskara) eta *Inch' Allah* (gaztelania).

**Haurtzaindegirik** behar baduzu, hiru egun lehenago esan 945 161 345 / igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

FEMINISMOA

Urriaren 31, osteguna

## VIOLETA SE FUE A LOS CIELOS

*Zuzendaria: Andrés Wood*

LABURPENA: “Nahi duzun moduan idatzi, bururatzen zaizkizun erritmoak erabili, zenbait tresna erabili, pianoaren aurrean eseri, metrika hautsi, abestu beharrean oihukatu, gitarra puztu eta korneta jo. Matematika gorrotatu eta zurrunbiloak maitatu. Sormena hegan egiteko planik gabeko txoria da, ez du inoiz zuzen hegan egingo” (Violeta Parra). Txileko artista horren eta harekin bizi ziren, bidaiatu zuten, maitatu zuten, gaizki irten ziren, ilusionatu ziren eta beldurtu ziren pertsonen barne-mundua erakutsiko du kronologia-lerrorik gabe.

**FILMA:**
Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz.

**ZINEFORUMAREN HIZKUNTZA:**
gaztelania

**URTEA:** 2011

**IRAUPENA:** 110 min.



## Azaroaren 28a, osteguna

# JOVEN Y ALOCADA

## *Zuzend.: Marialy Rivas*

LABURPENA: Danielak 18 urte ditu eta ebanjelio-familia kontserbadore batean hazi da. Erru kristauren eta berez duen hezigaiztasunaren artean, Danielak gehiegikeriaz betetako gau traumatiko bat biziko du eta horrek gurasoen zigorra eta existentziari buruzko zalantzak ekarriko dizkio. Heldutasunerako pauso behartu horretan, Daniela saiatuko da nerabezaroko iragan kiskali horretatik askatzen, baina beste erronka batekin egingo du topo: lehen amodio homosexuala.

**FILMA:**
Jatorrizko bertsioa gaztelaniaz.

**ZINEFORUMAREN HIZKUNTZA:**
euskara

**URTEA:** 2012

**IRAUPENA:** 92 min.



**DINAMIZATZAILEA:**
June Fernández Casete
Kazetaria, generoan aditua, blog egilea eta Pikara Magazine aldizkari digitaleko zuzendaria.

## Urtarrilaren 23a, osteguna

# INCH' ALLAH

## *Zuzendaria: Anaïs Barbeau-Lavalette*

LABURPENA: Fikzio hau batez ere Jordanian filmatu da. Chloë ginekologo kanadar bat da eta Zisjordanian errefuxiatutako pertsonekin esparruan egiten du lan. Emozionalki emakume batekin baino gehiagorekin lotuko da, baina batez ere Randekin. Egunero-egunero zenbait bidegabe eta gehiegikeri ikusiko ditu eta beraz horretan parte hartu beharko du, baina, aldi berean, espero ez duen infernurantz abiatuko da.

**FILMA:**
Jatorrizko bertsioa arabieraz.

**ZINEFORUMAREN HIZKUNTZA:**
gaztelania

**URTEA:** 2012

**IRAUPENA:** 102 min.



# IRAKURLE FEMINISTEN KLUBA



Urriaren 2a, asteazkena

## “50 SOMBRAS DE GREY” ETA BESTE LITERATURA FENOMENO BATZUK

TOKIA:
Ortuño Aretoa - Montehermoso Kulturunea
ORDUTEGIA: 19:00etatik 21:00etara

Jarduera honen bidez “50 sombras de Grey” liburuaren (E.L. James) arrakastari eta liburu horrek erakusten dituen estereotipo, mito, errealitate, joera eta gizarte nahiei erantzun nahi zaie modu kritiko, feminista eta parte-hartzaile batean.

**Zeinu-mintzairako interpretaririk eta/ edo Haurtzaindegirik** behar baduzu, hiru egun lehenago esan (945 161 345/ igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org)

FEMINISMOA

**HIZLARIA**
***Josune Muñoz San José***
Euskal filologoa eta Skolastika/ Literatura femenino eta Feministako Eskolako zuzendaria.

**MODERATZAILEA**
***Begoña Etayo Ereña***
Generoan eta garapenerako lankidetzan aditua.  Maria de Maeztu Forum Feministako kidea.

**HIZKUNTZA**
gaztelania

***Sarrera librea izango da toki guztiak bete arte.***

# “ORDU BIOLETA” IRAKURLE FEMINISTEN KLUBA

## 2013: Urriaren 16a, azaroaren 20a, abenduaren 18a. 2014: Urtarrilaren 15a, otsailaren 19a, martxoaren 19a, apirilaren 9a, maiatzaren 21a, ekainaren 18a.

TOKIA: 3. Hezkuntza lantegia aretoa - Montehermoso Kulturunea
ORDUTEGIA: 18:30etik 20:30era

Hilero, hirugarren asteazkenean bilduko gara aldez aurretik irakurritako liburu edo artikulu jakin bati buruz hitz egiteko eta iritziak trukatzeko. Emakumeen talde kontzientzian aztertzeko aukera emango diguten zenbait eleberri, poema, saiakera, iritzi-artikulu, etab. ikusiko ditugu. Laburbilduz, elkarrekiko eremu bat sortuko dugu, non feminismoak gure bizitzak aberats ditzakeen.

KOORDINATZAILEA
***Begoña Etayo Ereña***
Generoan eta garapenerako lankidetzan aditua. Maria de Maeztu Forum Feministako kidea.

### IZENA EMATEKO ETA BERRIZ IZENA EMATEKO EPEA:

**IZENA EMATEKO:**
irailaren 9tik urriaren 9ra (biak barne).

**HIRU HILEAN BEHIN ORDAINTZEN DA ETA BERRIZ IZENA EMATEKO ESKUBIDEA DAGO:**

- I. hiruhilekoa ordaintzeko: 2013ko irailaren 9tik urriaren 9ra.
- II. hiruhilekoa ordaintzeko: 2013ko azaroaren 30etik abenduaren 15era.
- III. hiruhilekoa ordaintzeko: 2014ko martxoaren 8tik 16ra.

**LIBRE DAUDEN LEKUETAN IZENA EMATEKO:**

- II. hiruhilekoa: 2013ko abenduaren 19tik 2014ko urtarrilaren 8ra.
- III. hiruhilekoa: 2014ko martxoaren 20tik apirilaren 2ra.

**NORI ESKAINIA:**
Emakumeei

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**TALDEA:**
gutxienez 10 /gehienez 20

**HIRUHILEKOAREN PREZIOA:**
Abonatuak: 5,04 €
Ez abonatuak: 8,40 €

FEMINISMOA

INFORMAZIOA JASOTZEKO ETA IZENA EMATEKO: 010 / Gizarte etxeak / www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

LAGUNTZAILEA
Udaleko Liburutegien Sarea.

**Haurtzaindegirik** behar baduzu, hiru egun lehenago esan 945 161 345 / igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

# LANTEGIAK

**INFORMAZIOA JASOTZEKO ETA IZENA EMATEKO:**
010, Gizarte etxeak, www.vitoria-gasteiz.org/berdintasuna

**Haurtzaindegirik** behar baduzu, hiru egun lehenago esan 945 161 345 / igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

## AUTODEFENTSA FEMINISTA EMAKUMEENTZAT

Lantegi hauek trebetasun fisikoak eta indargune psikologikoak garatzea dute helburu, emakumeen aurka gerta daitezkeen indarkeria-gertaerei erantzuteko.

PRESTATZAILEA
***Maitena Monroy Romero***
Fisioterapeuta eta emakumeen aurkako indarkerian aditua.

### 1. LANTEGIA

| | |
|---|---|
| **Egunak:** | 2013ko urriaren 4 eta 5a (ostirala eta larunbata). |
| **Ordutegia:** | ostiralean 16:00etatik 20:00etara eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. |
| **Tokia:** | Judimendiko G.E. |

### 2. LANTEGIA

| | |
|---|---|
| **Egunak:** | 2013ko azaroaren 5, 7, 12 eta 14a (astearte eta ostegunak) |
| **Ordutegia:** | 18:30etik 21:30era. |
| **Tokia:** | Aldabeko gizarte etxea |

### 3. LANTEGIA

| | |
|---|---|
| **Egunak:** | 2013ko azaroaren 29 eta 30a (ostirala eta larunbata) |
| **Ordutegia:** | ostiralean 16:00etatik 20:00etara eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. |
| **Tokia:** | Judimendiko G.E. |



## 4. LANTEGIA

**Egunak:** 2013ko abenduaren 13 eta 14a (ostirala eta larunbata).

**Ordutegia:** ostiralean 16:00etatik 20:00etara eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era.

**Tokia:** Judimendiko G.E.

## 5. LANTEGIA

**Egunak:** 2014ko urtarrilaren 17 eta 18a (ostirala eta larunbata).

**Ordutegia:** ostiralean 16:00etatik 20:00etara eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era.

**Tokia:** Iparralde gizarte etxea

## 6. LANTEGIA

**Egunak:** 2014ko otsailaren 14 eta 15a (ostirala eta larunbata).

**Ordutegia:** ostiralean 16:00etatik 20:00etara eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era.

**Tokia:** Iparralde gizarte etxea

## 7. LANTEGIA

**Egunak:** 2014ko martxoaren 21 eta 22a (ostirala eta larunbata).

**Ordutegia:** ostiralean 16:00etatik 20:00etara eta larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era

**Tokia:** Aldabeko gizarte etxea



### NORI ESKAINIA
Emakumeei

### HIZKUNTZA
gaztelania

### TALDEA
gutx. 10 /gehienez 20

### PREZIOA
Abonatuak: 10,08 €
Ez abonatuak: 16,80 €

### IZENA EMATEKO EPEA

**2013ko lantegiak:**
2013ko irailaren 9tik lantegiak hasi baino astebete lehenagora arte.

**2014ko lantegiak:**
2013ko abenduaren 16tik lantegiak hasi baino astebete lehenagora arte.

FEMINISMOA

LAGUNTZAILEA
Udaleko Gizarte Etxeen Zerbitzua.

# JENDAURREAN HITZ EGITEKO TEKNIKAK

## GASTELANIA

### Urriaren 2, 9, 16 eta 23a, eta azaroaren 6 eta 13a (asteazkenak), 18:15etik 21:00etara

“Ideia bat komunikatzen jakitea ideia bera bezain garrantzitsua da”. Ikastaro honetan, komunikazio prozesu hori zertan datzan jakingo dugu, zein diren gure beldurrak ikusiko dugu eta zer elementuk parte hartzen duten prozesu horretan; horrela bada, horiek ezagutuz eta horretan entrenatuz, jendaurrean hitz egiteko teknika batzuk ikasi eta ohitura hartuko dugu, betiere entzuleak zein diren eta zein egoeratan gauden aintzat hartuta.

PRESTATZAILEA
***Miriam Ocio Saenz de Buruaga***
Psikologoa eta komunikazioan eta generoan aditua.

**TOKIA**
MONTEHERMOSO KULTURUNEA
Betolaza Aretoa

**NORI ESKAINIA**
Emakumeei

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**TALDEA**
gutxienez 10 /gehienez 20

**IZENA EMATEKO EPEA**
Irailaren 9tik 25era

**PREZIOA**
Abonatuak: 13,86 €
Ez abonatuak: 23,10 €

**KOMUNIKAZIOA ETA GAITASUNAK**



## EUSKARA

### Ostegun, ostiral eta larunbatetan:
### Azaroaren 7, 8, 9, 14, 15 eta 16a.
### Ostegun eta ostiraletan: 18:15etik 21:00etara, larunbata: 11:15etik 14:00etara.

Jendaurrean hitz egiteko badira zenbait teknika erabilgarri, eta horiek lantegi honetan garatu eta landuko ditugu. Gainera, hizkera ez sexista erabiltzen ikasiko dugu, arlo guztietan emakumeen agerpena sustatzeko, baita mintzaldietan eta ahozkoa ez den komunikazioan ere.

PRESTATZAILEA
***Esti Redondo Tirado***
Kazetaria eta idazlea.

**TOKIA**
MONTEHERMOSO KULTURUNEA
Betolaza Aretoa

**NORI ESKAINIA**
Emakumeei

**HIZKUNTZA**
euskara

**TALDEA**
gutxienez 10 /gehienez 20

**IZENA EMATEKO EPEA**
Irailaren 9tik urriaren 31ra.

**PREZIOA**
Abonatuak: 13,86 €
Ez abonatuak: 23,10 €



# EMAKUMEEN JABEKUNTZA: ESANAHIAK, ESTRATEGIAK ETA ADIERAZLEAK BERRIKUSI

## Astearte eta ostegunetan, urriaren 8, 10, 15 eta 17a, 18:15etik 21:00etara.

Lantegi honetan jabekuntzari buruzko eztabaida teorikoan sakonduko dugu eta horren esanahi urratzailea berreskuratuko dugu; ikuspuntu horretatik ondorioztatzen diren aldaketa-estrategiei buruz ere eztabaidatuko dugu, hala nola estrategia horiek nola zehazten diren emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko, sexu- eta ugalketa-eskubideen alde borrokatzeko eta ekonomia-autonomia sustatzeko.

PRESTATZAILEA
***Clara Murguialday Martínez***
Ekonomista feminista eta generoan eta garapenerako lankidetzan aholkularia.

**TOKIA**
MONTEHERMOSO
KULTURUNEA
Betolaza Aretoa

**NORI ESKAINIA**
Emakumeei

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**TALDEA**
gutxienez 10 /gehienez 20

**IZENA EMATEKO EPEA**
Irailaren 9tik urriaren 1era.

**PREZIOA**
Abonatuak: 9,24 €
Ez abonatuak: 15,40 €



KULTURA-ANIZTASUNA
ETA ELKARTASUNA

# KULTURA, GENEROA ETA GIZA GARAPENA

## Urriaren 21a, astelehena, 16:30etik 20:30era.

Lantegi honetan Adriana Kaplanek metodo bat proposatuko digu, emakumeen genitalen mozketari aurre egiteko duen esperientzia praktikoan oinarrituta, elkartzen diren hiru gai hauetan ekiteko eta hausnartzeko: kultura, genero eta giza garapena. Lantegiaren helburua da parte hartuko dutenek jakintzan sakontzea eta bizi dugun errealitatea modu kritikoan behatzeko ohitura hartzea.

PRESTATZAILEA

***Adriana Kaplan Marcusán***
Wassu-UAB Fundazioaren zuzendaria eta Parc de Recerca-UAB Jakintza-Transferentziaren Katedrako zuzendaria.

**TOKIA**
EL PILARreko gizarte etxeko erakusketen aretoa

**NORI ESKAINIA**
Herritarrei

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**TALDEA**
gutxienez 10 /gehienez 30

**IZENA EMATEKO EPEA**
Irailaren 9tik urriaren 14ra.

**PREZIOA**
Abonatuak: 3,36 €
Ez abonatuak: 5,60 €



**KULTURA-ANIZTASUNA ETA ELKARTASUNA**

LAGUNTZAILEAK
Norabide / Udaleko Etorkinentzako Harrera Zerbitzua (Gizarteratzea Zerbitzua) eta Gizarte Etxeen Zerbitzua.

# “BURNT OUT” SINDROMEA. HIGADURARI AURRE EGIN

## Azaroaren 15a, ostirala: 17:00etatik 21:00etara.
## Azaroaren 16a, larunbata: 10:00etatik 14:00etara.

Zer egiten dute elkarte-mugimenduek zuzentzen dituzten emakumeek euren burua iraunarazteko? Lantegi honen bidez elkarte-mugimenduetan parte hartzen duten emakumeen bizipenen inguruan egingo dugu hausnarketa; abiapuntua boluntario, konprometitua, aktibista izatearen bizipena da; gainera, hori guztia ongizatean oinarrituta; horrela bada, gure elkarteek egiten dituzten apustuei eta arlo publikoan dugun jarrerari berriz ekin ahal izateko eta horretan dugun eragina hobetu ahal izateko.

PRESTATZAILEA
***Inma Merino de Castro***
Emakumeen jabekuntzan eta emakumeen aurkako indarkeriarekiko esku-hartzean aditua

**TOKIA**
JUDIMENDIKO GIZARTE ETXEA
Erabilera Anitzetarako aretoa

**NORI ESKAINIA**
Elkarteetako emakumeei

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**TALDEA**
gutxienez 10 /gehienez 20

**IZENA EMATEKO EPEA**
Irailaren 9tik azaroaren 8ra

**PREZIOA**
Abonatuak: 6,72 €
Ez abonatuak: 11,20 €

**IDENTITATEA, SUBJEKTIBOTASUN FEMENINOA ETA BALIO-ALDAKETA**

LAGUNTZAILEAK
Udaleko Herritarren Parte Hartzerako Zerbitzua eta Gizarte Etxeen Zerbitzua.

# INDARKERIARI ATEAREN AZPITIK PASATZEN UZTEN DIOGU?

## Azaroaren 20 eta 27a eta abenduaren 4a (azteazkenak), 18:15etik 21:00etara

Lantegi honen bidez, geure buruarekin eta gure bikoteekin harremanetan jartzeko moduak esperimentatuko ditugu. Harreman afektibo luzeetan non kokatzen garen ikusi eta probatuko dugu. Norberaren nia landuko dugu, hori iraunarazteak eta elikatzeak harremanean zer garrantzi duen eta ez galtzeko zer muga jarri ikusiko dugu. Botere- eta berdintasun-harremanen inguruan hausnarketa egingo dugu, norberaren eta taldearen jabekuntza prozesuan mehatxatzen eta mugatzen gaituzten arriskuez jabetuko gara.

PRESTATZAILEA
***Inma Merino de Castro***
Emakumeen jabekuntzan eta emakumeen aurkako indarkeriarekiko esku-hartzean aditua

**TOKIA**
MONTEHERMOSO KULTURUNEA
Dokumentazio Zentroko
Proiekzioen Aretoa

**NORI ESKAINIA**
55 urtetik gorako emakumeei

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**TALDEA**
gutxienez 10 /gehienez 20

**IZENA EMATEKO EPEA**
Irailaren 9tik azaroaren 13ra

**PREZIOA**
Abonatuak: 6,93 €
Ez abonatuak: 11,55 €

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURREA HARTZEA

LAGUNTZAILEA
Gizarte Gaien eta
Adinekoen Saila.

# POSTA ELEKTRONIKOA ERABILTZEA ETA INTERNETEN OINARRIZKO ERABILERA

## Asteazken eta ostegunetan:
## abenduaren 11, 12, 18 eta 19a, 18:15etik 21:00etara

Lantegi honetan posta elektronikoaren bidez nola komunikatu ikasiko dugu, baita Interneten nabigatzeko beharrezkoak ditugun zenbait oinarrizko gaitasun eskuratu ere. Internet eta Informazio eta Komunikazioko Teknologiak pertsonen zerbitzura daude eta Interneten emakumeen jakintzak eta ezagutzak ikusaraztea eta agerraraztea oso garrantzitsua da, onarpena eta berdintasuna lortu nahi baditugu.

PRESTATZAILEAK

***Mentxu Ramilo Araujo***

Politika eta Administrazio Zientzietan doktorea. Ikerlaria. Teknologia eremintetan prestatzailea.

***Erika Martin Ugarte***

Teknologia erreminten erabileran prestatzaile eta eragilea.

**TOKIA**
MONTEHERMOSO KULTURUNEA
Ordenagailuen aretoa

**NORI ESKAINIA**
55 urtetik gorako emakumeei

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**TALDEA**
gutxienez 8 /gehienez 12

**IZENA EMATEKO EPEA**
Irailaren 9tik abenduaren 4ra

**PREZIOA**
Abonatuak: 9,24 €
Ez abonatuak: 15,40 €

**KOMUNIKAZIOA ETA GAITASUNAK**

LAGUNTZAILEA Udaleko Adinekoen Zerbitzua.

# IPUINEN ARNASKETA

## Ostiral eta larunbatetan: 2013ko abenduaren 20 eta 21a; 2014ko urtarrilaren 10 eta 11a.
## Ostiraletan: 17:00etatik 21:00etara eta larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era.

Genero ikuspegitik egingo dugun ipuin-lantegia da. Bertan beti kontatu dizkiguten ipuinak aztertuko ditugu, horien gaineko kontzientzia hartuko dugu eta, nahi izanez gero, barneko gidoia aldatuko dugu. Entzuten ikasiko dugu ondoren kontatzen ikasteko; lengoaia metaforikoa ikasiko dugu: sinboloak, ereduak; lengoaiaren estiloak, fantasiaren gramatika, hitzaren eta hitzezkoa ez den lengoaiaren erabilera; errepertorio baten sorrerara eta norberaren hausnarketara hurbiltzeko.

PRESTATZAILEA
***Virginia Imaz Quijera***
“Oihulari Klown” antzerki taldeko zuzendaria.

**TOKIA**
JUDIMENDIKO GIZARTE ETXEA
Erabilera Anitzetarako aretoa

**NORI ESKAINIA**
Herritarrei

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**TALDEA**
gutxienez 10 /gehienez 25

**IZENA EMATEKO EPEA**
Irailaren 9tik abenduaren 13ra

**PREZIOA**
Abonatuak: 20,16 €
Ez abonatuak: 33,60 €

KULTURA
BIRDEFINITZEA

LAGUNTZAILEA
Udaleko Gizarte Etxeen Zerbitzua.



# ZAINTZEA KOSTATZEN DA! DERRIGORREZKO ZAINTZA-REKIKO INTSUMISIOA

## Urtarrilaren 22a, asteazkena, 16:30etik 20:30era

Familia-eremuan egiten den zaintzari buruzko azterketa feministaren ardatz nagusi batzuk landuko dira, mintegiko parte-hartzaileen esperientzia pertsonal edo eta profesionaletik abiatuta: emakumeak zaintzaile rola hartzera bultzatzen dituzten genero-aginduak; familia-zaintza intentsiboan gizonen eta emakumeen arteko esperientzia desberdindua; zaintzaile migratzaile profesionalen eta euskal familien arteko elkarrekintza; eta zaintzaren inguruan feministek dituzten ikuspuntuak, zaintza gizarte antolaketarako eta bizitzaren sostengurako zutabe gisa hartuta.

PRESTATZAILEA
***Dominique Saillard Bouyssié***
Generoan, parte-hartzean eta garapenerako lankidetzan prestatzailea eta aholkularia.

**TOKIA**
EL PILARREKO G. ETXEA
Erakusketen Aretoa

**NORI ESKAINIA**
Emakumeei

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**TALDEA**
gutxienez 10 /gehienez 20

**IZENA EMATEKO EPEA**
2013ko irailaren 9tik 2014ko urtarrilaren 15era

**PREZIOA**
Abonatuak: 3,36 €
Ez abonatuak: 5,60 €

ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUKIDEA

LAGUNTZAILEA
Udaleko Gizarte Etxeen Zerbitzua.



# BESTE BEGIRADA BATZUK POSIBLE DIRA: TRANSGENEROAK ETA SEXU-ANIZTASUNA

## Urtarrilaren 24a, ostirala: 18:15etik 21:00etara eta urtarrilaren 25a, larunbata: 11:15etik 14:00etara.

Zer pertsonak osatzen dute sexu-aniztasunaren taldea? Lantegi honetan denok talde horretan gaudela ikusiko dugu eta sexu-aniztasun horretan zer printzipio etikok zuzendu beharko lukeen gure bizikidetza eztabaidatuko dugu. Gainera, aniztasun horrek aldaketarako zer erronka ekarriko dituen genero-berdintasunaren ikuspunturako landuko dugu.

PRESTATZAILEA
***Inmaculada Mujika Flores***
ALDARTE / Lesbiana, gay eta transexualei arreta egiteko zentroko zuzendaria

**TOKIA**
MONTEHERMOSO KULTURUNEA
Dokumentazio Zentroko
Proiekzioen Aretoa

**NORI ESKAINIA**
Herritarrei

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**TALDEA**
gutxienez 10 /gehienez 20

**IZENA EMATEKO EPEA**
2013ko irailaren 9tik 2014ko urtarrilaren 17ra

**PREZIOA**
Abonatuak: 4,62 €
Ez abonatuak: 7,70 €

IDENTITATEA, SUBJEKTIBOTASUN FEMENINOA ETA BALIO-ALDAKETA

# NIRE IDENTITATEA EZ DAGO SALGAI! BEREZKO IDENTITATEARI EUSTEKO ETA HORI SORTZEKO MODUAK

## Asteazken eta ostirala: 2014ko urtarrilaren 29 eta 31a, 18:15etik 20:45era

Kontsumo-gizarte batean bizi gara eta gizarte horretan gure identitatea salgai dago.  Publizitatearen estilo hutsean, pertsonak kontsumitzaileak eta kontsumituak dira. Nork diseinatzen du zer garen? Nork marrazten ditu gure gorputzak? Nork asmatzen ditu gure ohiturak? Non gelditzen naiz ni? Lantegi honetan zenbait mito engainagarri eta iruzurgile batzuk hautsi nahi ditugu eta dena berrasmatu nahi dugu baina, aldi berean, gure apustuarekin gugan sinesten dugula oihukatu nahi dugu argi eta garbi.

PRESTATZAILEAK

***Beatriz Luz Asensio***

Genero berdintasunean aditua. “7 menos 20” taldeko kide da.

***Isabel Piqueras Bartolomé***

Genero berdintasunean aditua, feminista eta blog idazlea.

**TOKIA**
MONTEHERMOSO KULTURUNEA
Dokumentazio Zentroko
Proiekzioen Aretoa

**NORI ESKAINIA**
18 eta 30 urte bitarteko emakumeei

**HIZKUNTZA**
gaztelania

**TALDEA**
gutxienez 10 /gehienez 20

**IZENA EMATEKO EPEA**
2013ko irailaren 9tik 2014ko urtarrilaren 22ra

**PREZIOA**
Abonatuak: 4,20 €
Ez abonatuak: 7,00 €

IDENTITATEA, SUBJEKTIBOTASUN FEMENINOA ETA BALIO-ALDAKETA

# BESTE JARDUERA BATZUK

**INFORMAZIO GEHIAGO:** Udaleko Berdintasunerako Zerbitzua

**Haurtzaindegirik** behar baduzu, hiru egun lehenago esan 945 161 345 / igualdad.adm@vitoria-gasteiz.org

## NORBERAREN ETA TALDEAREN JABEKUNTZARAKO LIDERGO-GAITASUNAK. COACHING IKUSPEGITIK EGINDAKO HURBILKETA

### Astelehena eta asteazkena: urriaren 7, 14, 23 eta 30a eta azaroaren 4a, 18:00etatik 21:00etara

Taldeak, proiektuak, elkarteak zuzentzeko, lehendabizi geure burua zuzendu beharra dugula ikusiko dugu. Nire ekintzarako barne balio pertsonalak eta gidatzaileak zein diren, nire baliabideak eta puntu sendoak, nor naizen egoera onenean nagoenean eta testuinguru jakin batean zer lortu nahi dudan jakin behar dut. Gainera, zerk mugatzen nauen, nire barneko erasotzaileak zein diren eta horiek nola kudea ditzakedan jakin behar dut.

PRESTATZAILEA

***Maru Sarasola Anzola***

Generoan eta  coaching prozesuetan berdintasuneko eta lidergo garapeneko aholkularia.

**TOKIA**

SIMONE DE BEAUVOIR

Elkarteen Etxeko “Simone de Beauvoir” Aretoa.

**NORI ESKAINIA**

Emakumeen Elkarteei

**HIZKUNTZA** gaztelania

e IDENTITATEA, SUBJEKTIBOTASUN FEMENINOA ETA BALIO-ALDAKETA

# “HIRIGINTZA PLANGINTZA GENERO-IKUSPUNTUAREKIN” GAIARI BURUZKO HAUSNARKETAK ETA PROPOSAMENAK EGITEKO EREMUA“

## Urriaren 18a, ostirala: 16:30etik 20:30era;
## Urriaren 19a, larunbata: 10:00etatik 14:00etara.

Vitoria-Gasteiz Hirigintza Plangintza Antolamendurako Plan Orokorra berrikusten ari den une honetan, bereziki estrategikoa eta beharrezkoa da genero-ikuspuntua aplikatzea eta hiri inklusibo batean aurrera egitea, hau da, hemen bizi diren pertsona guztiak, haien nahiak eta beharrak aintzat hartuta planifikatzea, eta elkarrekin erabakiak hartzeko aukera ematea, komunitate bateko kide izatearen sentimenduaren oinarria baita hori.

PRESTATZAILEA ETA DINAMIZATZAILEA:
***Ane Alonso Méndez*** (Arkitektoa)
***Koldo Telleria Anduela*** (Arkitektoa)
**HIRIA** Kolektiboa.

GENERO-IKUSPEGIA SARTZEA

**TOKIA**
ALDABEKO GIZARTE ETXEA
Erabilera Anitzetarako aretoa

**NORI ESKAINIA**
Herritarrei

**HIZKUNTZA**
gaztelania

LAGUNTZAILEAK
Udaleko Herritarren Parte-Hartzearen Zerbitzua eta Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorra Berrikusteko Bulegoa - Hirigintza Saila.



# BIZITZA... BEGI-KLISKA BAT DA. “HECHOS SON AMORES”. FILM LABURRAREN BIDEZ HAUSNARTZEA

Film laburra ikusi ondoren, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako arrisku eta babes faktoreen inguruan hausnarketa egingo dugu. Hartara, guk izan beharreko ibilbide orriari buruz, pertsonala zein gizarte arloan, gogoeta egingo dugu. Film laburra “Por los Buenos Tratos” programaren barruan dago; programa horren helburua honakoa da: emakumeek zein gizonek gure egin ditzagun zenbait balio, hala nola, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, norberaren autonomia eta gure bizitzari buruz erabakiak hartzeko askatasuna, gatazkak modu baketsuan ebaztea, norberak bere buruarekiko eta gainerakoekiko izan beharreko errespetu eta ardura, etab.

**EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI AURREA HARTZEA**

PRESTATZAILEA
***Belén González Paredes***
Kazetaria eta “Por los Buenos Tratos” Programako koordinatzailea

## Azaroaren 22a, ostirala, 10:00etatik 14:00etara

**TOKIA**
UPV/EHUKO GIZARTE LANGINTZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA.

**NORI ESKAINIA**
UPV/EHUko ikasleei eta gazte guztiei irekita.

**HIZKUNTZA** gaztelania

LAGUNTZAILEA UPV/EHUko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola.

## Azaroak 22a, ostirala, 16:30etik 20:30era

**TOKIA**
ALDABEKO GIZARTE ETXEA
Erabilera Anitzetarako aretoa

**NORI ESKAINIA**
14 urtetik gorako gazteei

**HIZKUNTZA** gaztelania

LAGUNTZAILEA Udaleko Gazteria Zerbitzua-Gauekoak eta Gizarte Etxeen Zerbitzua.

# OHARRAK



Lantegietan eta irakurle feministen klubean izena ematen dutenek, aukera izango dute Montehermoso Kulturunearen Dokumentazio Zentroaren mailegu-zerbitzua erabiltzeko jarduera zikloa hau amaitu arte. Dokumentazio Zentroari buruz gehiago jakin nahi izanez gero: www.montehermoso.net